BERSOETAN

# BITTOR, FIKAR GAZTEA

**MAITAGARRIA**

**Larros artean legez ebillen**
**bildots zuria lanean,**
**ogetabiko gazte lerdena**
**maitez urtzen biotzean.**

**Ogetabi orriko landara**
**Zugatza baño beñago.**
**Eder. Osasuna bera baño**
**mutilla zan maitegarriago.**

**Odola garbi, arin, zaiñetan.**
**Buru argia aidetan.**
**Bizitz ontako amets guztia**
**itxaropen dardaretan.**

**Larrosa bezela zara eder**
**bildotz ain zuri zuria,**
**lantegira zoaz bizi legez**
**gazte lerden biotztia.**

**LANEAN**

**Lanean ari da gogo garbiz**
**euskaldun mutil gaztea,**
**zer dabil gogoan, berez...**
**i udabarriko lorea**

**Bizia maite dau barne gogoz**
**azurrak aragia aña,**
**osasuna dario begitik**
**gaztearen bizi miña.**

**Lana maite dau gazte-biotzez,**
**egia añean bardin,**
**bizi minak dei egiten, berez,**
**lurrak landutzen nai burdin.**

**Alegiñak alegin egingo.**
**Bittorren zintzotasunak**
**zer ete dabil biotzean, berez,**
**gaztearen maitasunak.**

x



**ZINTZO**

**Bittor, zintzorik, dabil lanean.**
**Ez dau txarrik biotzean,**
**Ezta kezkarik barnean sortu**
**gizon - lanaren legean.**

**Otsoa inguruan dabilkio.**
**Iñork ez daki lurrean.**
**Lapurrak bezela iruntzi nai dau**
**bildots zuria lanean.**
**Ai!; bat batean, alanbra ariak**
**jo dau biotz muin erdian,**
**sua izan da gori-goria**
**dardara ilkorrez batian.**

**Argi indarraren ankerkeria... !**
**Mutilla il dau goizean.**
**Bittor biotzdun ebillan baña**
**su-otso egon atzean.**

**SUAGAi**

**Egiz, suaga iltzaille bat bezela**
**agertu jatsun etsaia,**
**bizia, bitxirik ederrena,**
**erre eutsun ankerkeria.**

**Baña gizadia, bat batean,**
**zurekin errukitu zan,**
**zu laneko lagunen artean**
**martini biurtu ziñan.**

**Ondorengo ordu guztietan,**
**zu zenbilleezan miñetan,**
**gizonen odola lertzen egon**
**zure maitasun garretan.**

**Su-arrak kiskaldu ba-zinduzan**
**gorrotozko kirtenkeriz,**
**gizonen biotzak maite zaitu**
**gozotasunez berariz.**

**ITZA**

**Jaungoiko Itza zan zuretzako**
**santuenik santuena,**
**il ezin dan gizonen egia**
**ta geroko atsedena.**

**Kor etzan zure ondoren joan**
**jaio ziñan Eleizara,**
**ork ez sentidu zure il-otza**
**orbere biotz erara...?**

**Jendetza aundi artean egoan**
**Kristo maiaren gañean,**
**;uztiok, sinismenez, esaka:**
**trtu eizu zure etxean.**

**iinismen, maitasun, itxaropen,**
**,noimenik santuenak,**
**;izon garraziz eske ebiltzan**
**sure lagunik onenak.**

**PAULIN**